

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Koro Gorostidi Muguruza

*Donostia,
Gipuzkoa
(1944)*

Aurkibidea



Biografia



Mirakruz gainean jaio zen, Bentaberri etxean; Txiskuene taberna zuten han. Errepidea egiteko bota zuten etxea, eta orduan Amarara joan ziren bizitzera. Korok zortzi urte zituen. Mirakruz kalean joan zen eskolara hasieran, gero Miserikordiko mojegana, eta Elizaranera ere bai ondoren. Ospitaleak eraikitzen ari zirela, Txiskuene jatetxea jarri zuten. Batxilergoa bere kontura egin ondoren, Frantzian egin zituen praktikak, eta ondoren Londresen ere egon zen, aupa bezala. Bost urtean erresidentziako telefonista izan zen, eta 30 urtetatik etxeko negozioaren ardura izan du. Oraintxe da erretiroa hartzekoa. 26 urterekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba ditu.

Zintak

DON-059

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-11-11
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Altzatik Amarara bizitzera

- **Erref:** DON-059/003
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:00:57. **Bukatu:** 00:02:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Alto Miracruz Altzako parte zen orduan, "Vinagres" deitzen zitzaion zonaldeari. Garai hartan euren etxea zena taberna ere bazen, "Txiskuene" zuen izena tabernak. Etxeak "Benta Berri" izena zuen. Hiru ahizpa ziren, 1955ean

Amarara joan ziren bizitzera errepidea zabaltzeko lanak zirela-eta etxea bota zietelako, eta 56an jatetxea jarri zuten bertan.

2. Mojen ikastetxeetara ikastera

- **Erref:** DON-059/005
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:03:48. **Bukatu:** 00:07:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Kupel mota bati "txiskua" deitzen omen zitzaion, eta etxe ondoan sagardotegi bat zutenez, agian hortik etor dakioke tabernari "Txiskuene" izena, baina ez dago ziur. Tabernako bizimodua ez du gogoan, etxekoa bai. Aitona, gurasoak eta hiru ahizpak bizi ziren etxean, Miracruzera joaten ziren eskolara, pobreenera, mojekin. Ondoren Miserikordiarra eta Leitzaranera ere joan zen ikastera, mojenak ziren denak. Bizikletaz ibiltzen hasi aurretik zaldi karroan joaten ziren Leitzaranera, alde zaharrera.</p>

3. Miracruz gaina

- **Erref:** DON-059/006
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:07:04. **Bukatu:** 00:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Miracruz gain ingurua ez da asko aldatu garai hartatik hona. "Bautisten baratzak" deitzen zioten zelaian ibiltzen ziren jolasean, geltokia ere bazen, ez du askorik gogoratzen. Ingurua asko aldatu dela dio, baina kaskoa bera ez horrenbeste.

4. Sokasaltoan eta txingotan

- **Erref:** DON-059/007
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:08:04. **Bukatu:** 00:09:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Etxean ez zuen laguntzen askorik txikitan. Kalera irteten ziren jolastera; sokasaltoan, txingotan... neskak neskekin, eta mutilak mutilekin.

5. Tabernako kontuak

- **Erref:** DON-059/008
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:09:09. **Bukatu:** 00:10:06

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Tabernara jende asko gerturatzen zen, bertako jendea, Intxaurrendoko jendea... Tripakiak eta karakolak oso onak prestatzen zituzten tabernan, sartzen zen guztientzat menu bera egoten zen.

6. "Txiskuene" martxan, 1902az geroztik

- **Erref:** DON-059/009
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:10:06. **Bukatu:** 00:11:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gurasoak Altzakoak ziren, biak. 1902tik "Txiskuene" taberna martxan zegoen, amonak jarri zuen martxan, ondoren amak, eta gero beraiek. Auzoz aldatu arren, izena mantendu egin zuten.

7. Mezak Donostian, erosketak Erreterian

- **Erref:** DON-059/010
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:11:28. **Bukatu:** 00:13:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Herria, azpiegitura » Garraioak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

Donostiara joateko tranbia hartzen zuten, trolebusak ezagutu aurretik. Altxatik erosketak egitera Erreteria edo Pasaiara joateko ohitura handiagoa zuten, Donostiara joateko baino. Haragia eroztera joaten ziren batez ere, olio, azukrea eta abar kooperatiban izaten zutelako. Mezatara Miracruz gainera joan ohi ziren, baina bataiatu Herreran bataiatu zuten, hura zen parrokia. Mezak eta jaunartzea, Miracruz gaineen.

8. Amaran baserri giro euskalduna zen nagusi

- **Erref:** DON-059/011
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:13:26. **Bukatu:** 00:16:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria

Laburpena:

Amarako ospitale ingurua asko aldatu da ordutik. Garai hartan baserri giro euskalduna zen nagusi, asko bota egin zituzten gerora. Militar granja bat ere bazen. Oinez ibiltzen ziren askotan auzorik auzo.

9. Telefonoa etxean

- **Erref:** DON-059/012
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:16:35. **Bukatu:** 00:18:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Etxean telefonoa zutenez, bertara deitzen zuten enkarguak eta abar emateko, eta ondoren inguruko baserrietakoekin harremanetan jartzen ziren, berriak emateko. Oilategia zuten, baita txerria ere, baina ez zuten aprobetxatzen, harakinen bati saltzen zioten.

10. Itsasoa Amararaino iristen zen

- **Erref:** DON-059/013
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:18:32. **Bukatu:** 00:19:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Amaran etxeak egiten hasi aurretik, ura zen dena, baratzeak eta ura, itsasoa iristen zen haraino.

11. Frantzian eta Ingalaterran lanean eta ikasten

- **Erref:** DON-059/014
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:19:32. **Bukatu:** 00:22:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Arrautzak saltzera etxeetara joan ohi ziren. Akademiara joaten ziren ikastera, eta gero Amarako institutuan egiten zituzten azterketak, Peñafiorida institutuan. Frantzian eta Ingalaterran ikasteko pribilejioa ere izan zuen Korok. "Au pair" moduan joan zen Ingalaterrara, umeak zaindu eta etxeko garbiketa lanak egiten zituen.

12. "Txiskuene" tabernako gorabeherak

- **Erref:** DON-059/015
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:25:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

26 urterekin ezkondu zen, eta 30 urte ingururekin hasi zen tabernako negozioa eramaten, baina aurretik tabernan nahikoa lan egina zuen, baita tabernatik kanpo ere. Neskabila zela, zopa, potajea, haragi gisatua... ematen zuten tabernan. Langile jendea ibiltzen zen batez ere, eta bazkalosteko kafea, kopa eta purua ez zuten saltzeko.

13. Ardoa eta sagardoa etxean

- **Erref:** DON-059/016
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:25:00. **Bukatu:** 00:26:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Alkohola etxeetan guztiz sartuta zegoen gauza bat zen. Ardoa eta sagardoa gaztetxotatik edaten zuten, barriketan edo botiletan ekartzen zuten etxera, Usurbildik.

14. Oialumera dantzan egitera

- **Erref:** DON-059/017
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:26:12. **Bukatu:** 00:28:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Dantzara Hernaniko Oialumera joan ohi ziren, "El autobús rojo" deitzen zioten hartan. Martuteneraino oinez jaisten ziren, errepidetik, errepide asfaltatuak ezagutu zituzten, baina errebueta askokoak. Errenteriara ere joan izan ohi ziren topoan, gutxitan ordea.

15. Soineko bat aste barruan, bestea asteburuan

- **Erref:** DON-059/018
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:28:34. **Bukatu:** 00:30:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Soinekoak jostunek josten zituzten, eurek Amarara, alde zaharrera edo aldameneko baserriko jostun batengana jo ohi zuten. Soineko bat aste barrurako, eta beste bat astebururako, ez zen izaten besterik. Tabernan txukun jantzita egon behar izaten zuten.

16. Etxean beti euskaraz

- **Erref:** DON-059/021
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:32:13. **Bukatu:** 00:33:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Baserrian euskaraz aritzen ziren beti, Donostiara kalera jaisten zirenean, ordea, askotan gaztelaniaz aritu behar izaten zuten. Tabernan euskaraz eta gaztelaniaz, bietara aritzen ziren, bezeroaren arabera.

17. Etxean kantuan, bertsopaper eta guzti

- **Erref:** DON-059/022
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:33:46. **Bukatu:** 00:34:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Kantatzeko joera bazuten etxean, amak bertso asko zekizkien. Gogoan du amak bertsopaperak ekartzen zituela etxera, astean behin-edo.</p>

18. Irailaren 24an festa

- **Erref:** DON-059/023
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:34:49. **Bukatu:** 00:36:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

"Txiskuene" zaharrean telefonoa, irratia, ura eta komuna zuten, baita bainugela ere. Bertsolaririk ez zen joaten bertsotara, baina soinu-joleak bai, Pikondoa, Miracruz gainekoa bera. Irailaren 24an festa egin ohi zuten urtero, tuberkulosiarekin gaixo zeudenei egun horretan irteteko baimena ematen zieten monjek, eta euren tabernan eta ondokoan musika jartzen zuten, soinu-joleak etortzen ziren.

19. San Sebastian egunez, arraina eta angulak

- **Erref:** DON-059/025
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:37:23. **Bukatu:** 00:39:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>San Sebastian egunean angulak jaten zituzten, garai hartan angulak jatea horren berezia izan ez arren. Arraina eta angulak Donostian bertan erosten zituen denda batean, edo iparraldean bestela. Kotxea hartuta joaten zen iparraldera, bera izan zen gidabaimena atera zuen inguruko lehen emakumea. Zalgurdian ibiltzen ohitu ostean kotxean ibiltzera ohitu ziren, bitartean hiru ahizpak bizikletaz ibiltzen zirelarik.</p>

20. Hilotza etxean, lurperatzeko ordua iritsi arte

- **Erref:** DON-059/028
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:43:12. **Bukatu:** 00:45:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Bera etxean jaiotako den arren, ez du gogoan gerora ondoko baserrietan jaiotzarik egon zenik eta bisitan joan zirenik, klinikan jaioko ziren orduz gero. Norbait hiltzen zenean ordea, hilotza etxean izaten zen lurperatzeko ordua heldu arte. Bere aita Altzakoa zen, bera gaztea zela hil zen, bizkarrean jaitsi zuten Anoetaraino, eta zaldi karroan mugitu zuten gero, Altzaraino.

21. Elizara, Miserikordiara edo ospitalekora

- **Erref:** DON-059/029
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:45:23. **Bukatu:** 00:47:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

Jende askok euren ingurua Amaran kokatzen dela uste duen arren, Martuteneri dagokio. Elizara Miserikordiara joaten ziren, edo ospitaleko elizara bestela. Aita hil zenean gogoan du urtebeteko lutoa egin zutela, ama hil zenean ordea, ez zuten lutorik egin.

22. Amara asko hazi da 70. hamarkadaz geroztik

- **Erref:** DON-059/030
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:47:50. **Bukatu:** 00:48:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Amaran aldaketarik handienak 70. hamarkadan gertatu ziren. Ospitaleko langileak, gaixoen senitartekoak... etortzen hasi zirenean, auzoa asko handitu zen, bete egin zen Amara.

23. Kantu eta bertsoez gain, zezenketak zituen gustuko

- **Erref:** DON-059/032
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:49:08. **Bukatu:** 00:53:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Amak etxean kantatzen zituen bertsoez oroitzen da, baita trikiti doinuekin ere, amari ere asko gustatzen zitzaion dantzatzea. Ez Dok Amairuren garaia gogoan du, baina inoiz ez ziren joan ikustera. Zezenak ikustera joan ohi zen Txofrera, gogoan du nola betetzen zen Miracruz kalea jendez. Jendea dotore jantzita joan ohi zen zezenketetara. Oinez, tranbiaz, autobusez edo kotxez joaten ziren, hiru ahizpak eta ama. Aitona zuten azpeitiarra, eta uste du hortik zetorkiela zezenketetarako afizioa.

24. Baserriko jendea baserritik bizi zen

- **Erref:** DON-059/033
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:53:06. **Bukatu:** 00:54:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak

Laburpena:

Baserriko jendea baserritik bizi zen, plazetan baserriko produktuak saltzetik, San Martinen, etab. Harakinak baziren, igeltseroak ere bai, baita tabernariak ere, baina gehienak baserriko lanetatik bizi ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com